



UZTURPE IKASTOLAKO KULTUR ASTEA, ETZI

Hilaren 25ean hasi eta 31n amaituko da Ibarako Ikastolaren kultur eskaintza; pailazoak eta guzti egongo dira >6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-01-23**

VIII URTEA 1.910. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



INIGO TERRADILLOS

LANDER LASA SASKIBALOI JOKALARIA

«Entrenamenduetako mailaren arabera erabakiko dute non jarraituko dudana»

TOLOSA Iraurgi taldearekin EBA mailan jokatzeko du tolosar gazteak, baina entrenamenduak ACBko Lagun Arorekin egiten ditu z

Kaldereroetan AHTren aurkako manifestazioa egingo dute Triangulotik abiatuta

TOLOSA Abiadura Handiko Trenaren proiektua gelditzeko aukera «oraindik badagoela» uste du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak z

Euskararen alde mobilizatuko da EHE asteartean

VILLABONA Euskararen aurkako erasoei erantzuteko elkarretaratzea egingo dute 7



Kantabriako Santa Olaja errota zaharberritu zuen Sagastumek. HITZA

Errota zaharrak biziberritzen

AMEZKETA Konstan Sagastumek, besteak beste, lerabizkar Behekoa errota zaharberritu du 4-5

2-16 URTE

bi urteko gelan - udal ludoetara

uzturpe ikastola

herrian hazi eta hezi

ibarmaldean kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

ATEAK ZABALIK Emeterio Arresen
urtarrilak 25 astelehena
17:00tan Euskaraz
18:30ean Gazteleraz

Epelak 2. 2008. Baita | Tel. 941.811700 | Fax. 941.811702 | baita@baita.net | www.uzturpe.net

E Elkarrizketa**LANDER LASA** » Saskibaloia jokalaria

«ACB ligan jokatzeko oso urrun dago oraindik»

Saskibaloia » ACB mailako Lagun Aro taldearekin ari da entrenatzen Lasa; denboraldiaren amaierara arte Iraurgi taldearekin jokatuko ditu partidak.

INIGO TERRADILLOS

Iragan ostiralean espero ez zuen berria jaso zuen Lander Lasak (Tolosa, 1988). EBA mailan ari den Lan Mobil Iraurgi saskibaloia taldeko jokalaria aurrerantzean Lagun Aro taldearekin entrenatzeko aukera izango du. «Gustura» dago eman dioten aukerarekin, baina badaki «zaila» izango duela ACB ligako partidatan jokatzeko.

Nola jaso zenuen Lagun Aroarekin entrenatzeko albistea?

Sorpresa handia izan zen. Iraurgiko entrenatzaileak deitu zidan. Kolpe bat izan nuen sudurrean duelagutxi, eta uste nuen horri buruz galdetzeko zela, eta Lagun Aroren eskaintzarena esan zidan. Ezusteko pozgarria izan zen.

Beraz, bi taldeetan jarraituko duzu.

Orain libre ditudan egunetan baino ez dut entrenatuko Azpeitiako taldean, gainerako egunetan Lagun Aroko bainaiz. Asteburuetan, berriz, Iraurgirekin jokatuko dit partidak.

Lagun Aroren entrenatu egingo duzu soilik. Zergatik hori?

Lagun Aro fitxarekitzen badidate eurekin lotura izango nuke, eta ezingo nuke Iraurgirekin jokatu gehiago. Lagun Aroarekin denboraldi honetan ez nuke partidatan jokatzeko aukerarik izango, aukerian egongo nintzakete, horregatik egokiago ikusten dut nik ere Iraurgirekin jarraitzea.

Eta hurrengo denboraldian jokatuko aukera izango al zenuke?

Hori beraiek erabakiko dute. Denboraldi honetako entrenamenduen arabera izango da. Nire esku dagoela uste dut. Entrenamenduetan maila ona ematen badut aukera izan nezake. Taldean pixka bat sartzeko eta arduradunek nire maila ikusteko baliatuko dute aurrerago denboraldia. Beraz, hurrengo urtera begiratu baino, aurten lan txukuna egiten saiatu behar dut.

Zu taldean sartzeko jokari batek utzitako hutsunearekin lotu dute.

Bai. Edgar San Epifanio jokariak taldeautzi du. Ez zuen Lagun Aro jokatzeko aukera gehiegirik, eta ondorioz, Kataluniara bueltatzeko erabaki du. Horregatik, orain niri eman didate aukera, partidatan jokatuz ez arren, entrenamenduetan bere lekua hartzeko.

Zure burua ikusten al duzu ACB ligan jokatzen?


Beti dago ilusioa eta esperantza, baina hori niretzat oraindik pauso oso handi bat ematea da. Urrun dago hori oraindik.

Datorren urtean izan daiteke agian.

Oso ona litzateke, baina oso zail ikusten dut oraingoz. Nik Iraurgin jarraituko dut denboraldi amaierara arte nire maila ematen, eta ikusiko dugu ea datorrenari begira zer etortzen den.

Zer moduz ikusi duzu zure burua Lagun Aroarekin entrenatzen?

Sei aldiz entrenatu dut Lagun Aroarekin. Lehenengo egunean nire Iraurgiko kideek eta entrenatzaile-



I. TERRADILLOS

leek lagundu ninduten oso urduri bainengoen. Baina egunek aurrera egin duten neurrian ondo ikusi dut nire burua. Maila oso altua dute jokariak eta gorpuzkerari dagokionez, sendoagoak direla esan daiteke. Uste dut nahikoa ari naizela parte hartzen entrenamenduetan

«Entrenamenduetan ematen dudun mailaren arabera erabakiko da non jarraituko dudun»

eta nire maila ari naizela ematen, beraz, gustura nago.

Taldearen harrera zer moduzkoa izan da?

Bedeinkapen modukoa-edo egin didate taldean sartzean, eta jokari gazteena naizelako izan dut txantxaren bat edo beste, baina oso ondo. Taldeko jokariarekin erlazio ona dut, eta pozik nago.

Iraurgiko kideak ere poztuko zirenezuekin.

Nire moduan ezustean hartu zuten berria, eta guztiak animatu naute aurrera jarraitzeko. Ahal dudana egiteko esan didate, baina Iraurgin jokatzeko ere maila berean mantenduz.

ACB ligako maila hain gertu ikusitea handia izango da. Era berean garrantzitsua izango da norbere lekua zein den jakitea.

Bakoitzak bere lekua du eta norberak daki ondoen zein mailatan dagoen.

Iraurgi denboraldi oso txukuna egiten ari da aurten.

Bai. Lehenengo postuan gaude, eta dezenteko alde ateratzen diogu bigarren taldeari. Orain Galiziako beste talde batean sartzeko gara, eta hor igoerako fasea jokatuko dugu. Lehenengo eta bigarrena sartuko gara talde horretan. Aurrerago taldea ia zkoa baino ahulagoa izan arren, oso ondo ari garela esan behar da.

Eta Lagun Aro?

Hasieran uste zutena baino askoz hobeto ari dira. Azken partidatan pixka bat jaitsi dira, baina oraingoz denboraldi ona egiten ari dira.

Jokari ez ezik entrenatzaile bezala ere aritu zara. Zer moduzko esperientzia izan da?

Orain arte kiroldegian aritu naiz lanean eta arratsaldeetan TAKEko jubenil mailako talde bat entrenatzen nuen. Orain, ordea, ezin dut entrenatu nire ordutegi berria dela eta. Askok gustatzen zitzaidan entrenatzea, eta gainera taldeko jokariak gogor saiatzen dira, eta horrek poztzen nau.

Nola ikusten duzu Tolosan saskibaloia?

Nik Tolosan jokatzeko nuenean talde gutxiago zeuden, orain berriz talde asko daude, bereziki gazte txoen artean, eta hori oso inportantea da. TAKE asko hazi da azken urteetan eta Gipuzkoako klub garrantzitsuenetakoa dela esan daiteke.

Zergatik aukeratu zenuen saskibaloia?

Patinajearen aritzen nintzen, atletismoan baita ere, baina nire kirol gustukoena futbola zen. Egun ba-

» DI-DA BATEAN**■ Jokari bat?**

Lagun Aro taldeko Andy Panko.

■ Jokari euskaldun bat?

Jon Kortaberria donostiarra.

■ Talde bat?

Lan Mobil Iraurgi.

■ Kirol bat saskibaloiaz gain?

Futbola eta patinajea.

■ Saskibaloia jokari izango ez bezala?

Futbol jokalaria.

■ Ze titulu irabaziko zenuke?

Iraurgi aurten mailaz igoko nuke gustura.

■ Egin duzun saskiratzerik handiena?

Gogoan dut Tolosan kadete mailan jokatzen nuenean, partida bateko azken unean sartu nuen hiruko batek garaipena eman zigula.

tean futbol eta saskibaloia probak egin behar zituzten, eta nik saskibaloia egin nituen. Nire familia guztiak saskibaloian jokatu izan du, eta pentsatu nuen poztu egingo zirela nik ere saskibaloia aukeratu. Uste dut aukera ona izan zela.

Eta Tolosatik pixkanaka gorantz egin duzu.

Tolosan hasi nintzen jokatzeko infantil mailan. Kadete mailan ondoren eta jubenil mailan baita ere. Atletico San Sebastianen jarraitu nuen jubeniletan. Gero Askatuak taldean jokatu nuen, eta handik Burgosera joan nintzen. Han urtebete pasa ondoren Azpeitiko Iraurgira joan nintzen, eta han eman dit azken bi urteak.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetroa moztua.

Etxera eramaten dugu. Harrematarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.

■ **Txakurkumeak.** Ehizarako erabilgarriak diren txakurkumeak salzten dira. *Braco alemaniar* arrazakoak dira. Interesatuak ondorengo telefonora deitu behar dute: 634 45 9110.

Euskal Herriko goma gaineko txapelketako bigarren saioa jokatu da gaur

Ibarra » Eskualdeko neskak Lakuntzan ariko dira sokatiran; 17:00etan hasiko da saioa; pilotalekuan izango da.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko goma gaineko 8x8 sokatira txapelketa ari da jokatzeko, eta gaur saioetako bat izango da Lakuntzan. Pilotalekuan, 17:00etatik aurrera izango da jardunaldia, eta bertan lehiatuko dira Ibarra neskak.

540 kiloko atalean ari dira hartzen parte eskualdekoak. Biharko bigarren saioa izango da, eta eskualdekoek gain, beste hiru talde ariko dira sokatiran: Gasteizko Badaiotz, Arbizuko Sakana, Lesakako Beti Gazte eta eskualdeko Ibarra. Lehendabiziko saioaren ostean, laugarren postuan daude Tolosaldekoak.

Gasteizko Badaiotzek lehen soka-kolapea eman zuen lehen jardunaldian, eta txapelaren zati erabakigarria lortzeko ahalegina egingo du oraingoan ere. Aurreko larunbatean tiraldi guztiak irabazi zituen.

Beraien esperientzia kontatzera datoz AndereNahia elkarteak

Tolosa » Iparraldeko emakume enpresariak elkarrekin bat da hau; otsailaren 2an eskainiko dute hitzaldia.

ERREDAKZIOA

AndereNahia emakume enpresariak osatutako taldeko kideak Tolosara datoz. Datorren asteartean, otsailaren 2an, 18:00etan Tolosako Udako Pleno Aretoan izango dira Ipar Euskal Herriko andereak. Bertan, beraien esperientziaren berri emango dute.

AndereNahia Taldearen lana ondorengo da, beraien artean laguntzen dira bere enpresak aurrera ateratzeko. Taldeko emakumeen autonomia bermatzen dituzten enpresa txikiak dituzte. AndereNahia aholkulariak ez dira bulego handietan ezkatzen diren espertsoak, taldeko emakumeak baizik. Emakumeen arteko elkartasuna eta bakoitzaren esperientzia partekatzea da beraien metodologia. Azken urteetan oso lan interesgarria egin dute eta Tolosan izango dira hau aurkezten.

Bi txapelketa irabazteko aukera dute Su-berriko pilotariak

ERREDAKZIOA

Su-Berriko palistek bi final garrantzitsu jokatu dituzte gaur. Ainhoa Garmendia eta Maitane Aburuzak (Su-Berri) nagusi kategoriko 2. mailako Gipuzkoako Elkartean arteko txapelketako finala jokatu dute Garbiñe Tijero eta Nagore Zabala (Hernani 3) hernaniarren aurka. Partida Anoetan jokatu da, 16:00etan.

Jaialdia bi partidaz osatua egongo da. Hasteko, hirugarren eta laugarren postua jokatu dute Urnieta eta Hernani 1-ek eta ondoren finala jokatu da Su-Berri eta Hernani 3-ren artean.

Bestalde, Itsaso Urkizu, Nagore Arozeta eta Maider Mendizabal Gipuzkoako txapelkun geratu ondoren Euskadiko txapelketa jokatzen aritu dira eta pasa den asteburuan Iruñako Oberena 2 taldearen aurka partida gogorra jokatu ondoren, finalerako txartela lortu zuten. Beraz, gaur 17:00etatik aurrera Mañarian (Bizkaia) Su-Berri taldeak (Urkizu eta Arozeta) Euskadiko txapelketako finala jokatu dute Intxaurren taldearen aurka.



Urkizu eta Mendizabal izan ziren garaile 1. mailako Gipuzkoakoan. HITZA

tzen aritu dira eta pasa den asteburuan Iruñako Oberena 2 taldearen aurka partida gogorra jokatu ondoren, finalerako txartela lortu zuten. Beraz, gaur 17:00etatik aurrera Mañarian (Bizkaia) Su-Berri taldeak (Urkizu eta Arozeta) Euskadiko txapelketako finala jokatu dute Intxaurren taldearen aurka.



Atzo iluntzean agerraldia egin zuten Triangulo plazan AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek. E. EZEIZA

Lurjabeei babesia erakusteko manifestaziora deitu dute

Tolosa » AHT Gelditu! Elkarlanak mobilizazioak antolatu ditu otsailaren 6rako; 17:00etan abiatuko dira Triangulo plazatik.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestaziora deitu du otsailaren 6rako. Ohi bezala, Kaldarero eguna aitzakiaz hartuta kalera aterako dira Abiadura Handiko Trenaren eraikitzea salatzen. Triangulo plazatik abiatuko dira 17:00etan eta hiriko kaleak zeharkatu dituzte.

AHTren aurkako herri mugimenduaren esanetan: «Abiadura Handiko Trenak edukiko lituzkeen kalte izugarriak ikusita, herritarrek ezin dute proiektuari oposizio egin gabe geratu». «Askoren hitzetan, jendea aurka egonda ere, egin egingo da, eta baieztapen hau mobilizazioetan ez parte hartzeko

aitzakia gisa jartzen dute». AHT Gelditu! Elkarlanakoen arabera, aldiz, «oraindik proiektua geratzeko aukera badago, eta horretarako, mobilizazioetan parte hartzea garrantzitsua da».

Elkarlanakoen ustetan, Tolosaldean lanak hasi dituztela barnerratu nahi diete herritarrei, besteak beste, «Patxi Lopez eta bere ingurukoak, Tolosako zatiko lehenengo harria jartzera etorri». Hau gurzura dela diote herri mugimenduko kideek, «oraindik ere lurra desjabetu gabe baitaude». Beraien hitzetan, «ezinezkoa da, desjabetu gabe dauden lurretan dagoeneko lanak hasita egotea».

Honenbestez, egoera nola dagoen ez azaltzeaz gain, egia ez dutela esaten salatu dute AHT Gelditu! Elkarlanakoei. Eskualdean bertan, eremuen arabera, egoera ezberdina dela azaldu zuten, atzo iluntzean egindako agerraldian. Tolosa eta Alegia bitarteko zatian, desjabetzeekin hasi dira baina To-

losa eta Hernani artekoan oraindik zehaztu gabe omen daude. Desjabetzeak berak, «lotsagarriak» direla deritzote, «lurjabeen gutxieneko eskubideak ezkatatu, bortxatu eta xantaia bidez» egin direla argudiatuz. Lurjabe hauei elkartasuna adierazteko asmoz mobilizatu dira beraz, *Espropiazioen aurrian, lurjabeei elkartasuna* lelopean.

Laburrak

Asteartean Osoko Bilkura egingo du Udalak

TOLOSA » Datorren asteartean Udabatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du. Batzarra 19:30ean izango da. Bertan ondorengo gaiak eztabaidatuko dira, besteak beste: Udalerriko biztanle guzteen izen ofizialak onartzea; Euskal Herria Plazan (Antonio Lekuona, 1) kokatzen diren lokalak egokitu eta usiatzeko kontzesioa; Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala «14.3 Berazubi ikaste-txea» azpierenuari dagokiona. Alegazioak ebaztea eta behin-behineko izaeraz onartzea.

Oargik Pic Deseques mendira irteera antolatu du

TOLOSA » Oargi elkarrekin hilaren 29tik 31rako Pic Deseques mendira irteera antolatu du. Ostiral arratsaldean abiatuko dira Tolosatik. Larunbat goizean abituko dira Sesques aldera, Bitet bailarik. Tontorra 2.606 metro tara dago, eta igorera nahiko gogorra dauka, 1.850 metroko gorabeherarekin. Guztira 13 orduko ibilbidea izango dela arreikusten dute. Izen-ematea bi modutan egin daiteke, 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta (19:00etatik aurrera) edo oargi@euskalnet.net-era idatzita.

Salgai, Txolarreren bertso saiorako azken sarrerak


TOLOSA » Txolarre irratia antolatuta, gaur bertso saioa izango da Leidor antzokian 18:00etan. Azken sarrerak salgai izango dira Leidorreko leihatilan. Saioa hasi baino ordu bete lehenago, 17:00etan hasiko dira saltzen. Bestalde, Tolosara gerturatzeko aukera ez dutenek, emanaldia zuzenean jarraitu ahal izango dute www.bertoa.com webgunean.

Patxi Zeberio Ezkurraren aurka jokatu du gaur

ELDUAIEN » Zeberio II.a berriro ere lehiatu izango da asteburuan. Ezkurra eta Etxeberria III.ak osatutako bikoteak Patxi Zeberio eta Lizaso izango dituzte aurrez aurre. Hernaniko Galarreta frontoian jokatu da partida, 16:00etatik aurrera.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Amezketako lerabizkar Behokoa errotaren presa irekita, urak gurpilak mugitzen ditu. ©GARCIA

HARRIA, EGURRA ETA URA

Amezketan Hainbat errota berritu ditu Konstan Sagastumek. Horietan berritu duen azkena herriko lerabizkar Behokoa izan da.

IMANOL GARCIA

Konstan Sagastume amezketarra aйна da errota zahar berritzen. Eraikina eta makineria kontuan hartuta, 24 errota berritu eta martxoan jarri ditu. Azkena Amezketako lerabizkar Behokoa errota, herriaren artean Errota Zaharra bezala ezagutzen dena.

Errota kin lotura bit, hamarkadan hasi zuten Sagastumek. Bere etxeko, Argañaz baserrikoa, jarri zuten martxoan bere aita-rekin, «kilarangandik ikasi nuen. Gero jakin zuten errota martxoan jarri nuela eta dena ziduten Pagueoko parkean dagoen Agaregillo errota martxoan jarretzeko». Piskakak mundu horretan sartzen joan da eta egun zahar berritzeak egiten dituzten lanak beteak errota, berrindolak, baserriak... Harria eta egurra maite ditu Sagastumek.

Errotaekin lotura, baina, ez da bakarrik zahar berritzea. Bere aita eta aiton errotariak izan ziren. «Atak lapitxoan zuten errota konpostzeko. Gerra ondoren kontrabandean ari zela harriaputu zuten eta dena desegin zioten. Atak erakusita hasi nintzen berre-

giten». Eta zahar berritzeaz gain, errota erabiltzen ere hasi zen Sagastume. «Guk lanerako jarri genuen martxoan. Irina egin eta ogia egiten hasi ginen. Bessinettik hasi eta Demostarriño fama lagemen ogetarekin. Integratsa egiten genuen eta dietetikak dena gahienetan saltzen genuen». Okin lanetan ari zela, beste errota zahar berritzen hasi zen, baina ikusi zuen bi lanak ezin zituela eraman eta zahar berritzea onartu zuen.

Errotariak erabiltz irina egiten duenik bada eskuaduan oraindik. «Ogia egiteari utzi nionean, he men ingurua Alegialdeko Agirrek jarri zuten irina egiten, Orendaingo errota deitzen zaiten horretan, Alegia eta Amezketan arteko bidean. Fama handia du arto-irinarekin. Talogile asko joaten omen dira bertara irina erostera.

Okinak garrantzi handia zuten lehen. Irinak ere bai. «Lehen irina ez zen kanpoetikartzen. Hemen go bitan lezentzako irina bertan egiten zen», dio Sagastumek eta goporatzen du girai batean nagusiari gariarekin, artoroekin eta arkumeekin ordezkatzen zitziola.

Lerabizkar Behokoa berreskuratzeko Garai batean Amezketan zortzi errota zuden. Egun, funtzionatzeko moduan daudenak Uharteko, Sagastumek duena berritua eta oraingutxi berritu den lerabizkar Behokoa dira. Azken hau oso urria eta errota zegoen. «Oraingo Udalaren gogoa izan da martxoan jartzea eta horretarako laguntza jertu zuten Foru Alduzkiak.

Aldineko herriaritek ez dute ezagutu lerabizkar Behokoa martxoan. «Erronka izan da miretzat», dio Sagastumek. Herriarivi errota erakutsi zitzaion egunen eguraldi txarra egin zuen, baina asko joan ziren bertara. «Jendek ez zuten espero horrela gogulduko zene. Eraikina eren lau paretak oso onak dira eta baita presarenak ere.

Eraikina eren goidaldean, honi atxikia, presa bat dago. Dena estalita zegoen eta hondakinak atara behar izan zituzten bertatik. «Lehen ez zituzten eraikinak botatzen. Estali egiten zuten eta bere gainean erabiltzen. Hurrengiak, handiak kendu eta gero, presa berreskuratu ahal izan dugu». Presa irekitzen urak bost metroko jauzia egiten du eta zepin duak berriduzko gurpilak mugitzen dituzte. Horiek andatzak mugitzen dituzte eta hauek errotariak. Lerabizkar be-

hekoak bi errota dauka, bat garritentzat eta bestea artoarentzat.

Unecoro errota ikusteko aukera dago. Bai azpiko gurpilak bai errotaren barrua argitatu egiten dira ate ondora iristean. Mugimendua nabaritzen dute sentsoarekin jarritako dauka. Errota burura ezin da sartu, baina sarea dagoelako, baita egindako zahar berritze lana ikusteko aukera ematen du. «Horrelako lan bat egin ondoren interesgarria da denbora gutxian ikustea».

«Erronka izan da miretzat», dio Sagastumek. Herriarivi errota erakutsi zitzaion egunen eguraldi txarra egin zuen, baina asko joan ziren bertara. «Jendek ez zuten espero horrela gogulduko zene. Eraikina eren lau paretak oso onak dira eta baita presarenak ere.

Eraikina eren goidaldean, honi atxikia, presa bat dago. Dena estalita zegoen eta hondakinak atara behar izan zituzten bertatik. «Lehen ez zituzten eraikinak botatzen. Estali egiten zuten eta bere gainean erabiltzen. Hurrengiak, handiak kendu eta gero, presa berreskuratu ahal izan dugu». Presa irekitzen urak bost metroko jauzia egiten du eta zepin duak berriduzko gurpilak mugitzen dituzte. Horiek andatzak mugitzen dituzte eta hauek errotariak. Lerabizkar be-

Mareak mugitzen duen errota eta ehuna jotzeko makina Hainbat lekutako errota berritu ditu Sagastumek, denak urarekin funtzionatzeko dutenak. Bizkain, Iparraldean, Kantabriar, Horietako bat oso berezia, marearekin mugitzen dena. Santa Olaja izena du eta Kantabriar dago. Noja berriarik gertu. Aintzirra handi bat dago bertan eta hori urez betetzen da itsusgura dagoenean. Aintzirra presa bezala erabiltzen da. Berri-tze lanak egiteko urpekariz jarriti behar izan zuten Sagastumeren lanak ikusteak.


Beste proiektu interesgarria Atarrabian (Nafarroa) egindakoa izanda. Bertan pilabot, jela jotzeko makina, berritu zuten. «Portugal eta Espainian zehar ibili nintzen informazio jasotzeko. Portugalen badago bat funtzionatzen duena. Espainian horrelako bat badago, baina ez du funtzionatzen», gogoratzen du.

Makina horrek tela jotzen du egurreko bi mailu handirekin. Txapelak egiteko erabiltzen den ehuna kartzeko baloia da. Tala busti egiten da, eta behin eta berriro jotzen da mailuekin. «Batek esan zuen bezala, lehengo goretoren zena bot. Galterdi batzuk baziren horrelako telarekin egindakoak eta urrik ez zen pasatzen bururra», dio Sagastumek.

Lanerako jarri zuten martxoan baserriko errota; irina eta ogia egiten hasi ziren bertan

lerabizkar Behokoa ikusteko aukera dago unecoro; sentsoare bidez pizten diren argiak ditu

gai egotea. Sistema horrekin ez da zertan inork bertan egon behar, errota irekizeko. Altxo Azpin berri gure errota eta behin berriduzko gurpilak mugitzen dituzte. Horiek andatzak mugitzen dituzte eta hauek errotariak. Lerabizkar be-



Konstan Sagastume lerabizkar Behokoa errotaren barrain. ©GARCIA



Sagastumek Atarrabian eraberritu duen jela jotzeko makina. ©GARCIA



Bi errota dauka lerabizkar Behokoa, bata gari-irina eta bestea arto-irina egiteko. ©GARCIA



Artoa eta gari erabiltz ohiko dira errotetan irina egiteko. ©GARCIA



Burdin-sare batekin babestuta, lerabizkar Behokoa errotaren barrua ikusi daiteke unecoro. ©GARCIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 1900ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel. 943-65 56 95

hilberriak urteurrenak eskertzak

KARMEN OTEGI GALARKIN

Erein zuzen haziak eta gure ameztak hartu duite bizi salto eta birniko songinik borrokan irinko

ZABAUTZ
2020ko urtarraren 25a

Bilque Feminista eta Sorginak

Etzi ekingo diote Uzturpe Ikastolako Kultur Asteari

Ibarra » Aurten graffitiak lotuko ditu ekitaldi guztiak, arte hezkuntza sendotzeko helburuz; igandera arte iraungo du Kultur Asteak.

NOELIA LATABURU

«Sendoturiko» helduko da Uzturpe Ikastolaren X. Kultur Astea. Etzi hasi eta igandera bitarte kultur ekitaldi ugari izango dira aukeran; guztiak ere «garrantzitsuak». Jokin Zugastik, Uzturpeko zuzendaria, azaldu bezala «gure helburua Ibarako kultur eskaintza zabaltzea da». Horretarako guraso, ikasle nahiz irakasleei zuzendutako eskaintza prestatu dute.

Aurten graffitiak lotuko ditu ekitaldi guztiak. Zugastik argitu duenez, «arte hezkuntza sendotzea eta, bide batez, Ikastolaren kanpalea txukuntzea» dira helburuak. «Ikasleei ideia izugarri gustatu zaie», gaineratu du. Larunbateko jaian guztien artean Ikastolako paretari kolorea emango diote. «Aurretik ikastarotxoak jasoko dute aste guztian zehar; oso polita izango da, guztien artean lan egitea, sozializazio hori ere bilatu dugu». Gaur, 10:00etatik aurrera ikastolako paretan prestatzen ariko dira. Gurasoen laguntza ere eskatu dute horretarako.

Irailetik lanean

Pasa den irailean hainbat gurasok osaturiko promozio batzordea lanean hasi zen Kultur Asteko xehetasunak finkatzen joateko. Urteroko ekitaldiak antolatzeke guraso hauen iritzia, ikasleen iritzia eta Ikastolan lantzen diren gaiak har-



laz Montse Meanak eta Lourdes Garijok hitzaldia eman zuten. I. GARCIA

tzen dituzte aintzat. «Aurten, esaterako, optometrista batek hitzaldia emango du; gu Ikastolan ber-

«Ekitaldi guztiak dira garrantzitsuak; larunbatekoa, esaterako, oso polita izango da»

rekin lanean ari gara. Garrantzitsua da lan hau gurasoek ere ezagutzea».

Hitzaldiak

Asteartean lehen hitzaldiaren txanda izango da. Teresa de Olabarria optometristak ikusmenaren inguruan jardungo du *Ikusmenaren garrantzia hezkuntzaren prozesuan* hitzaldian eta hainbat gal-

dera planteatuko ditu: Ikustea eta ikusmena berdina al dira? Zeintzuk dira trebezi nagusienak eskolako emaitzak onak izateko? Zertan jarri behar dute arreta gurasoek ikusmenaren arazoak detektatzeko?

Bigarren hitzaldia ostegunean izango da, Nerea Mendizabal hurren masaje ikastaroteko irakaslearen eskutik. 0, 1 eta 2 urte bitarteko haurrengan ematen diren aldaketan aurrean gurasoen jarrera zein izan beharko litzatekeen aztertuko du, besteak beste.

Hitzaldi guztiak, Benito Izagirre kultur etxean izango dira.

Amaitzeko, mendi ibilaldia

Igandean amaituko da Kultur Astea Ibiurrera egingo den mendi ibi-

» X. KULTUR ASTEA

■ Urtarrilak 25a, astelehena.

Ateak zabalik 2 urteko geletan, Emeterio Arrese 13an. 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.

■ Urtarrilaren 26a, asteartea.

Ikusmenaren garrantzia ikaskuntzaren prozesuan hitzaldia, gaztelaniaz, Teresa de Olabarria optometristaren eskutik, 18:00etan.

■ Urtarrilaren 27a, asteazkena.

Pirritx, Porrotx eta Mari Motos pailazoan *Irrien lagunak* ikuskizuna, 18:00etan Belabieta kiroldegian. Sarrerak 5 euroren truke, Ikastolan eskuragai. HITZAK ere bi sarrera pare zozketatuko ditu astelehenean.

■ Urtarrilaren 28a, osteguna.

Zer gertatzen da 2 urterekin hitzaldia 18:00etan, Nerea Mendizabal AEMlko kidearen eskutik. 0-2 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta.

■ Urtarrilaren 29a, ostirala.

Urtu baino lehen proiektzioa DBHko ikasleentzat ikastolako ikasle ohien lana, Dina Bilbao Bidaia Bekaren irabazle.

■ Urtarrilaren 30a, larunbata.

Graffiti festa 10:00etatik aurrera ikastolan, ikasle, guraso eta langileak. Ondoren bazkaria ikastolan (bakoitzak berea); 17:00etan txokolatada.

■ Urtarrilaren 31, igandea.

Mendi ibilaldia Ibiurko urtegiara. 09:00etan abiatuko dira Kultur Etxetik. Autobusak, 3 euroren truke. Bi ordu inguruko ibilaldia izango da. 14:00etan bueltatuko dira.

laldiarekin. Bi orduko «ibilaldi lasaia» izango da. Kultur Etxetik abiatuko dira 09:00etan eta 14:00etan bueltatuko dira. Bertara autobusez joango dira (3 euroren truke). «Mendi taldeak hileroko egin ohi duen irteeretako bat Kultur Astean barneratu dugu».

Santa Ageda eskean aterako dira otsailaren 4an Hauspoa elkarteko kideak

Ibarra » Otsailaren 2an eta 3an udaletxeko sotoan entseguak egingo dituzte, 20:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Hauspoa Kultur Elkartekoak datorren otsailaren 4an Santa Ageda eskean aterako dira. Aurten Santa Ageda eskea Izaskun auzoan zehar izango dute, honako ibilbidea eginez: Etxeberritxo, Elorbe, Palazioetxe, Artetxe, Izaskungo Plaza, Elutzuin, Txulone, Bidaba, Aldani, Intsalu, Bizkaietxe, Zumartetxe, Arginartetxe, Ibarburu, Ibarrodo eta Bizkardo. Otsailaren 4an arratsaldeko 18:30ean izango da irteera Ibarako anbulatorioitik.

Parte hartu nahi duten pertsona guztiak otsailaren 2 eta 3an, astearte eta asteazkena, iluntzeko 20:00etan udaletxeko sotoan egingo diren entseguetara bertartzeko deialdia egin diete.

Eta hurrengo egunean, Kalderero Eguna

Atsedean handirik ez dute izango aste honetan Hauspoa Kultur Elkartekoek, kaldereroen festa ere antolatu baitute heldu den otsailaren 5erako, ostiralerako, Inauterriak badatozela iragartzeko aldera.

Aurtengo eskea Izaskun auzoan zehar egingo dute; anbulatorioitik aterako dira 18:30ean

«Haurrek, gazteek eta helduek» dute tokia ekitaldi hauetan Hauspoak argitu duenez

Festa hau behar bezala ospatzeko, hala ere, otsailaren lehen, astelehena, 18:15etik aurrera, Uzturpe Ikastolako musika gelan entseguak egingo dituzte. Bertara «zartaginarekin eta ilusioz etortzeko gonbita» luzatzen dute Hauspoatik.

«Herriar guztientzako deialdia»

Kaldereroen festari 18:00etan ekingo diote. Ijitoen jantziekin eta zartaginak eskuetan San Bartolome plazan elkartuko dira ibartarrek festa giroa herriatik zabaltzeko.

Hauspoa Kultur Elkartetik herriarrek animatu nahi dituzte bai Santa Ageda eskean baita kaldereroen festan parte hartzera.

«Etxeko txikienek, gazteek zein eta helduek dute tokia, adin mugarik gabe», azaldu dute arduradunek.

Sudurgorri maitatuenean bisita Belabieta kiroldegira

Kultura » Asteazkenean Pirritx, Porrotx eta Mari Mototx pailazoek 'Irrien lagunak' azken ikuskizuna eskainiko dute, 18:00etan.

ERREDAKZIOA

Katxiporreta entzunda ziur burura datozkigula hiru pailazo alai eta ero hauek. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototx dira eta Ibarako Belabieta kiroldegira asteazkenean helduko dira. Bertan haien azken ikuskizuna, *Irrien lagunak*, aurkeztuko dute. Etxeko txikienek artean ezbarrik gabe ilusioz eta urduririk izango diote zitari.

18:00etan hasiko da pailazoan emanaldi berria. Sarrerak eskura-

garri daude dagoeneko Uzturpe Ikastolan bertan, bost euroren truke.

Zer ikusiko da emanaldian

Irrien festa mundialean pailazoak, lagun bihurri eta kilikagarriak eta gonbidatu bereziak bilduko dira. Parte-hartzea da oraingoan helburu: «Pailazo zein zale, barre, kantu eta dantza ariko gara guztiok, disko berriko abesti batzuk, lehena-gokoak eta herrikoiak tartekatuko ditugularik», azaltzen dute Pirritxek, Porrotxek eta Marimototxek.

Pailazoez gain, Xabier Zabala musikaria eta Idoia Uralde kantaria ere oholatza gainean izango dira aurtengoan, zuzeneko musika eta ahotsa eskainiz. Kubatik etorrita-

ko Duo Jade bikotea ere saiorik saio dabilta pailazoekin batera. Urtarrila bitarte, Olentzero ere haiekin ibili zen, Ibarra eta etorriko ez den arren.

Aurten Pirritxek ez du zuzenean herrikeri herri ibiltzerik, haurdun baitago, baina presente izango da Belabietan ere. «Saioan zehar hainbat alditan konektatuko dugu berarekin bideo-konferentzia bidez».

HITZAK ere sarrerak zozketatzen ditu

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere bi sarrera pare eskaintzen dizkie harpidedunei, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototx pailazoan emanaldirako. Horretarako 943 656595 telefono zenbakira



Ikuskizunaren kartela. HITZA

Gai eta adin tarte ezberdinei zuzendutako Guraso eskolak

Villabona » 11 urtetik beherako edo 11-16 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzat. Autoritatea, diziplina, dolua, galera...

E. MAIZ

Aurten ere, Villabonako Udalak, hausnarketa eta formazioa sakontzeko bi ikastaro ezberdin eskaintzen ditu. Lehena, 11 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzako izango da. Zortzi saioz dago osatua eta bertan gai desberdinak landuko dira. Urtarrilaren 25ean hasiko da.

Bigarren berriz, 11-16 urteko seme-alabak dituztenei zuzendua dago. Bigarren ikastaro honetan bi gai ezberdin proposatzen dira. Alde batetik, autoritatea eta diziplina, hausnarketa bultzatzearen, eta ardura ereduetatik estrategiak praktikatzeko asmoz; bestalde, gure bizitzetan benetan garrantzi-

tua den eta gutxitan aurre egiten zaion gai bat: dolua eta galera familiar, planteamendu hezitzaile batetik (ez terapeutikoa).

Bi proposamen hauek independenteak dira, eta aurretik hitzaldi bat joango litzateke (familia guztientzat irekia). Beraz, interesa duenak hiru saiotan parte hartzeke, udaletxera jo beharko du. Izena ematean, 6 euro ordaindu beharko da eta gehienez 25 lagun onartzen dira.

Saioak astelehenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara.

Autoritatea eta diziplina hitzaldia azaroaren 19an eman zen. Saioak, urtarrilak 25, otsailak 8 eta 22an izango dira. Dolua eta galerari dagokion hitzaldia, otsailaren 23an izango da eta saioak, martxoak 8, 15 eta 22.

Edozein eskaintzarako, Villabonako Udalean eman beharko da izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono honetara, 943 69 39 25.

Jesusen Bihotzak ateak irekiko dizkie gurasoei

Hezkuntza » Hilaren 27an eta 28an, Zizurkilen eta Villabonan Ikastolako ateak irekiko dituzte eskaintzak ikusteko.

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak, 2010-2011 ikasturterako matrikula kanpainan hastear dagoela jakinarazi nahi du. Aldez aurretik, Ikastolaren eskaintza ezagutu dezazuen, datorren astean ate irekiak antolatu dituzte.

Zizurkilen, urtarrilaren 27an izango da eta Villabonan hilaren 28an. Bi kausetan, 12:45ean eta

17:15ean izango dira. Gurasoei, Jesusen Bihotza Ikastolako irakasleek, aukera paregabea eskaintzen dizue, Ikastolako proiektu eta zerbitzuei buruzko informazio zabalago jasotzeko.

Era berean, herritar guztiak animatu nahi dituzte, IV. Kultur Asteko ekitaldietan parte hartzera. Hitzaldia, sukaldaritza ikastaroa, eskalada, ikasleen emanaldia Gurea zineman, pailazoak, ibilaldi neurtua eta abar. Harremanetan jartzeko telefonoa 943 69 23 21 da. Helbide elektronikoa berriz honakoa: billabona@ikastola.net. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, www.jesusenbihotzaikastola.com webgunera bisita daiteke.

Laburrak

'Donde viven los monstruos' eta 'Blindado'

VILLABONA » Bihar 17:00etan, *Donde viven los monstruos* filma izango da eta jarraian 19:30ean eta 22:30ean, *Blindado* Gurea Zineman. Igandean, 17:00etan *Donde viven los monstruos* filma eta 19:30ean *Blindado* eskainiko dute. Astelehena, hilak 25, ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean *Blindado* ikusteko aukera izango da.

Aralarko Aintzane Ezarneraren hitzaldia

ASTEASU » Aintzane Ezenarro Aralarreko legebiltzar taldeko bozerra-mailak hitzaldia eskainiko du Asteasun. Hitzaldia guztiz irekia izango da eta *Ezker abertzale politikoaren erronka* izenburupean emango du. Urtarrilaren 26ean, asteartean 19:30etik aurrera, Asteasuko udaletxeko ikus-entzune-koen aretoan izango da.



Villabonako Euskal Herrian Euskarazeko kideak hilaren 26ko mobilizaziora deituz. HITZA

Euskal Herrian Euskarazek Mobilizazio Eguna deitu du

Villabona » Asteartean, hilak 26, Nazio Mailako Mobilizazio Eguna izango da. Mintzola aurrean elkarretaratzea egingo da.

ENERITZ MAIZ

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak Nazio Mailako Mobilizazio Eguna deitu du datorren astearteko, Egunkaria auzia salatzeke eta euskarazko hedabideak erabili eta defendatzeko aldarrikapenarekin.

Euskarari erasorik ez! Euskaraz bizitzeko Egunkaria libre! lelopean Euskal Herriko hainbat herri eta auzoetan aldarrikapenari hauspoa eta oihartzuna emango dioten ekimenak egingo dira. Eskualdean, Villabonan elkarretaratzea burutuko dute 19:30ean Mintzolan aurrean. Zentzu horretan, Gasteiz eta Iruñeako Gobernu ordezkari-zen aurrean egingo dituzte elkarretaratze nagusiak.

EHEK, koloreak kolore, Egunkariaren eta euskaraz bizi nahi

duen herriaren aurkako erasoaren erantzuleztat du Estatuak.

EHEren irakurketa Egunkariaren kontrako auziaz

EHEk, garbi adierazi izan du bere sortzetik, duela 30 urte jada, «ezinbestekotzat jotzen dugu herria berreuskalduntzeko dinamikak abian jartzearekin batera, euskaltzaleok kalea hartu eta euskararen aurkako erasoei erantzutea eta areago oraindik, eraso horiek indar politiko eta administrazioetatik datozenean».

Bestalde «zazpi urte igaro dira jada Euskal Herriko euskarazko egunkari bakarraitxi eta Espainiar Estatuak herri honen kontrako erasoaldi berria abiatu zuenetik».

Eraso horren bidez, «estatuak ez zuen hedabide soil bat kolpatu nahi izan, herri honek egunegun erakusten duen euskaraz bizitzeko nahia baizik» gaineratzen dute. Mendeetan zehar luzatu da asimilazio prozesu hori, eta era askotarikoak dira euskararen herriaren bilakaera baldintzatu duen prozesuan eman diren urratsak

edota erasoak. «Hizkuntza galten duen herriak nortasuna ere galtzen duenaren jakitun, hizkuntza ordezkapenaren bidez menderatu nahi izan dute Euskal Herria» zentzu horretan ulertzen du EHEk euskara eta euskalgintza jomugan dituen Egunkariaren aurkako erasoak.

Ezin dugu ahaztu, «guzti horrekin batera, Estatuak euskara, euskalgintza, euskal kulturagintza, herri mugimendua eta euskaraz bizi nahi duen herria kriminalizatu gura izan dituela auzi honen bidez» azpimarratzen dute eta «Euskal Herriak behar du izan, euskalduna eta libre, eta zinez dio egun ere, euskaraz bizitzeko Egunkariak libre behar duela».

» MOBILIZAZIO EGUNA

Urtarrilak 26, asteartea

■ **19:30.** Elkarretaratzea Villabonako Mintzola aurrean.

■ **Leloa.** *Euskarari erasorik ez, euskaraz bizitzeko egunkaria libre!*

■ **Ekimen nagusiak.** Gasteiz eta Iruñean.

Gutunak

Txolarre 10 urte, mila esker

Bai, mila esker 10 urte hauetan ahotsik gabekoaren ahotsa izateko konpromisoa egin eta bete egin duzelako. Zorionak emateko tentazioa ere izan dugu baina uste dugu kasu honetan, zorionezkoak gure izan garena.

Eskualde honetako herrietako talde, mugimendu, elkarte etab.ek, gureak zabaltzeko bitarteko aparta izan dugu eta gainera musu-truk. Eta agian hor dago gakoia zuen gabeziari aurre egiteko. Badira komunikabide gehiago eskualde honetan, baina argi dago, inbertsioaren arabera tratamendua ematen dela zenbait kasutan, zen-

bait komunikabideetan. Guk, Etxerat Elkarte kideok behar izan dugun bakoitzean, aldamenetan izan zaituztegu. Askotan zuek eskaini dizkiguzue tartetxoak. Azken ostiraletan berriak izan ditugunean (zoritzarrez gehienetan txarrak) eta hori zoritzarrez, gaur egun demokraziaz eta eta askatasun adierazpenaz hainbeste hitz egiten den honetan, (Tolosako alkatearen esaldi famatua, pankarta eta kartelei buruzkoa, adibidez), ez da ohikoa izaten.

Gure aldetik, autokritika egitea ere egokitzen zaigu, zeren askotan zuen sintonia edo uhinak hartzeko dauden arazoak medio, errazegi izan dugu eta erraztasunarekin beste kate bat aukeratu. Beraz, argi

dago, maite dugun Txoritxo hau (ez gara Eitbko txoriz ari noski) zaindu behar dugula eta ahal dugun heinean. Laguntza eta babesa emateko prest gaudela esan nahi dizuegu Txolarreko partaite eta lagun guztiak.

Lehen pausua, gaur izango den Bertsolarien emanaldian izatea izan daiteke, gure elkartasun keimua adierazteko. Ziur izan, gure senideekin bisitan izango garenak ere, zuekin egongo gara.

Bukatzeko, zuri Jon, Etxerat Elkarte kide senide eta lagun guztien partetik eta nola ez gure senide eta lagun preso eta iheslari guztien partetik, mila esker eta segi aurrera.

Tolosaldeko Etxerat.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Picore (Zaragoza) eta Loan (Bilbo) taldeen kontzertua Bonberenean gaur 22:30etik aurrera.

Jaiak

■ **Tolosa.** Gazteok Txapinetan elkarrekin eta Inpernu Gazte Asanbladak 17:00etan koadrilen arteko patata tortilla lehiaketa egingo du gaur Inpernu gaztetxean, bitartean bertsolariak ere izango dira. Gauean afaria egingo dute eta ondoren Gargantas desgarradas taldearen kontzertua izango da.

Inauteriak

■ **Leitza.** Gaur hasiko dira Leitzako lhoteak. 14:00etan eskelarien bazkaria izango da Aurreran, 16:00etatik 20:00etara eskea ibiliko dira herriko etxeetan barrera eta 02:00etan karaokea egingo dute Atekabeltz gaztetxean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. 28 klik. **10:30.** Ilunpean.
11:00. Ikusmira. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Perretxikoak.
12:30. Zahar berri. **13:00.** Nonochan. **13:30.** Tolosaldean Gaur.
14:00. Klik. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Artegitza.

(*12:30etik 16:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunak.



Landa Goikoko urbanizazio lanak abian

LEITZA • Landa Goikoan urbanizazio lanak aurrera jarraitzen dute. Ondoren etxebizitzak eraikitzen hasiko dira; Goikoan 40 eta Behekoan, data aldetik oraindik zehaztu gabeko bigarren fase batean, 216. Hauetatik 166 Babes Ofizialeko Etxebizitzak izango dira eta 50 libreak. Proiektu hau ba-

tzordetik pasatu zenean, udal talde guztiak ados agertu ziren. Babestutako etxeetan izena emateko aukera oraindik ez dago zabalik; Leitzako Udal ordezkarien esanetan, «Nafar Gobernuaren esperoan» aurkitzen baitira oraindik. ASIER IMAZ

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



sarrerak

HITZAK bi sarrera pare ditu

Ibarrako Uzturpe ikastolaren X. kultur astearen barruan
IRRIEN LAGUNAK
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna

Urtarrilak 27 • Asteazkena • 18:00ean
Ibarrako Belabieta kiroldegian (berogailu sistemarekin)

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira astelehen goizetik aurrera